

INFORMAZIOAREN SEGURTASUNERAKO PRAKTIKA ONAK

Ikastolak, izaera pertsonaleko datuak tratatzen dituen beste edozein erakunde bezala, datu babesaren araudia bete behar du, eta ez betetzekotan, gogoan hartzeko isunei aurre egiteko aukera sortuko litzateke.

DBEO berriak zentro guztiak barneratu behar dituen planteamendu berriak ezartzen ditu. Horregatik, Ikastolak segurtasun neurriak ezarri eta neurri horiek pertsonal guztiari jakinaraztea erabaki du, erakundeak datuen babesaren legedia bete dezan.

Jakintza horren bitartez legediaren konplimendua areagotzen da, beharrezkoak ez diren arriskuak ekiditen eta baita informazio pertsonaleko datuak babesten. Hori dela eta, jokaera desegokiak edo arduragabeak saihesteko asmoz, beharrezkoa da ikastolan aplikatu beharreko segurtasun neurri tekniko eta antolakuntzako jakitun izatea.

Gaur egun asko dira heziketa zentroetan kudeatzen diren aktiboak (ordenagailu pertsonalak, telefono mugikor korporatiboak, tabletak, portatilak, proiektoreak, zerbitzariak, software aplikazioak, monitorea etab.). Modu berean, heziketa-plataformak, Ikastolako web orrialdea, sare sozialak etab. gero eta maiztasun handiagoz erabiltzen dira.

Kontzientziazioa, zentzutasuna eta praktika onak defentsarik onenak dira Informazio eta Komunikazioaren Teknologia sistemen erabileran ustekabeak antzeman eta ekiditeko. Beraz, informazioaren segurtasuna inplementatzeko eta arriskuak gutxitzeko segurtasun neurrien ezarpena ezinbestekoa da, eta baita horien behaketa jarraitua ere.

Beraz, jakinarazpen honen bidez, zure lana aurrera eramatean bete beharreko segurtasun informatikoko jardunbide egokien berri ematen dizugu. Funtsezkoa da erakundeko langile guztiek ondoren adierazitakoa errespetatzea; izan ere, bestela, ikastola arriskuan egongo litzateke, informazioaren segurtasunari dagokionez, eta horrek hura zehatzea ekar lezake.

Ondoren, Ikastolako pertsonal guztiak hartu behar dituen segurtasun neurriak zehazten dira:

OINARRIZKO SEGURTASUNA

- **Zure lantokiko informazioaren konfidentzialtasuna mantendu.** Maneiatzun duzun informazioaren arduraduna zara, eta zure lan jarduera gauzatzeko baino ez duzu erabili behar.
- **Pasahitz sendoak erabili** (zortzi karaktere baino gehiago, maiuskulak, minuskulak, sinbolo bereziak... izan dezatela (*/-+&%\$) eta zenbakiak) eta **alda itzazu gutxienez urtero bi aldiz** edo zure sistema arriskuen dagoela susmatzen duzunean.
- Ez ezagutarazi zure pasahitzak (gogoratu zure identifikatzailea bakar eta pertsonala dela). Pasahitz-kudeatzaile bat erabili.
- Ez gorde zure pasahitzak ikusteko moduko lekuetan.
- **Aldizka egin zure informazioaren segurtasun-kopiak**, datuen errekupeazioa eta baita mehatxuren bat gauzatzearen kasuan negoziaren jarraitasuna bermatzeko.
- **Sistema eragilea eta antibirusa eguneratuta mantendu**, ekipo edo gailuen aldizkako analisiak modu eraginkorren gauzatu daitezzen horrela infekzioak saihestuz.
- Lanpostutik kanpo zaudenean, saioa blokeatu.
- **Ez utzi begi bistan informazio delikaturik.** Euskarri elektronikoan eta paperean dauden dokumentuak leku seguruan biltegitratuko dira (sarbide mugatuko armairu edo gelak) eguneko 24 ordutan.
- **Informazioa jada beharrezkoa ez denean modu seguruan suntsitu** (birrinketa prozesua).
- Partekatutako inprimagailuetako dokumentuak berehala jaso eta **bisualki kontrolatuta ez dituzun inprimagailuetan inprimatzea saihestu.**
- Esleitutako gailu mugikorren erabilera egokia egin (Portatilak, Smarthphone-ak, tablet-ak etab.) eta **komunikazio pertsonalak eta profesionalak banandu.**
- Ez erabili ikastolak baimendu gabeko online biltegitratze zerbitzurik.
- Edozein segurtasun-gertakari antzematen baduzu, **berehala zerbitzu Informatikoarekin kontaktuan jarri**, lehenbailehen intzidentzia edo eragina irekiz, efektu posibleak arintzeko.

APLIKAZIOAK

Software instalazioak gailuen segurtasunari eta errendimenduari eragin diezaieke. Instalatu egiten duzuna jakinez.

- **Baimendutako eta fabrikatzaileak zuzenean emandako software-a instalatu.**
- Sistema eragilean eta izaera kritikoa duten eta arreta berezia behar duten aplikazioetan **segurtasun eguneratzeak instalatu.**
- **Ez instalatu inoiz jatorri ezezaguna edo zalantzazkoa duen programarik.**
- **Normalean pribilegiarik gabeko erabiltzaile bezala lan egin, ez Administratzaile bezala.**

NABIGAZIO SEGURUA

Erabiltzaile gehienak ez dira kontziente, Internet erabiltzerakoan nahi gabe era oharkabean ezagutarazten ari diren informazio guztiaz.

Nabigazio segurua mantentzeko **aholkuak**:

- **Konfiantzazko web orrialdetara bakarrik sartu.**
- **Nabigatzailea** fabrikatzailearen azken bertsio eskuragarria **eguneratuta mantendu.**
- **Programak leku ofizialetatik deskargatu** ordezte gaiztoak saihesteko.
- **Nabigatzailea konfiguratu** laster-leihoak ekiditeko.

POSTA ELEKTRONIKOA

Gaur egun, posta elektronikoa informazio-trukerako erreminta erabilienetako bat izaten jarraitzen du eta honekin bide honetatik datozen iruzurrak ere areagotu dira.

Posta elektronikoa era seguruan erabiltzeko **aholku** batzuk:

- **Ez argitaratu inoiz zure posta-kontua foro, blog, sare sozial eta abarretan.** Spam, birus, malware eta abarren gehiengoa leku publikoetan lortutako posta-helbideen bidez iristen da.
- Edozein adierazgarri duen edo ohiz kanpoko patroiak dituen posta elektronikoko mezu bat jasotzearen kasuan **ez sakatu inongo loturetan eta ez deskargatu erantsitako artxiborik.**

- **Ez fida bakarrik bidaltzailearen izenarekin.** Jasotako postaren berezko domeinua konfiantzazkoa dela egiaztatu. kontaktu ezagun batek ez ohiko informazioa eskatzen badu, telefonoz edo beste komunikabide baten bitartez kontaktatu horren legitimitatea berresteko.
- Posta elektronikotik deskargatutako edozein artxibo ireki baino lehen, **egiaztatu luzapena**, eta ez fida berarekin lotutako ikonoaz.
- **Ez sakatu banku datu edo datu pertsonalak eskatzen duen inongo loturetan.**
- **Posta elektronikoko bereko estekan zuzenean sakatzea saihestu.** Esteka ezezaguna bada, Google edo Bing bezalako bilaketa-tresnetan bilatzea gomendatzen da.
- Informazio sentibera daukaten **posta mezuak zifratu**. Aukerarik onena da.
- **Erabili pasahitz mardulak** posta elektronikoen sarbiderako. Pasahitzak aldizka berriztatu behar izango dira.
- **Ezkutuko kopia (CCO) erabili** helbide askotara mezu elektronikoko bat bidali behar duzunean.
- Edozein mezu elektronikoko bidali aurretik, ziurtatu hartzaileak zuzenak direla.

SARE SOZIALAK

Egungo sare sozialen erabilera masiboa nabaria da. Hori dela eta, arreta handia jarri behar da horien erabiltzerakoan. Kontzientziario urriak eta gehiegizko konfiantzak sare sozialen erabilera desegokia eragiten du.

Honakoak dira praktika egoki bezala sare sozialen erabilera egokirako eman daitezkeen aholku nagusiak:

- Sortu profila era arduratsuan eta pribatutasuna konfiguratu. Ez utzi plataformek dakartzaten lehenetsitako konfigurazioa.
- **Argitaratzen den guztiari buruzko hausnarketa egin.** Bereziki, arreta berezia jarri **ikasle adingabeen** kasuan beraien datuak, irudi edota bideoak argitaratzeko orduan, **beraien edo beraien** (14 urtetik aurrera) **guraso edo tutoreen adostasuna** (14 urtetik behera) **eskatu** behar delarik.
- Argitalpenetan agertzen diren **pertsonen intimitatea babestu** momentu oro.
- Erabili irudiak eta bideoak **helburu legítimo, didaktiko eta informatzaile** baterako.
- Kontuan hartu sare sozial batera igotzen dena **iraunkorra** dela, nahiz eta kontua ezabatu.

- Argitaratutako informazioa berrikusi. Ez eman gehiegizko informaziorik.

INTERESDUNEN ESKUBIDEEN EGINKARITZA

Edozein interesdunek ikastolaren aurrean honako eskubide hauek balia ditzakete; datuetarako irispidea izatea, datuak zuzentzea, tratamenduaren aurka egitea, datuak ezereztea («ahaztua izateko eskubidea»), tratamendua mugatzea, datuak transferitzea eta ez izatea banan-banako erabakien xede.

Ikastolak interesdunen eskubideen arretarako prozedura bat landu du. Hala ere, **langile moduan eskubide horiek baliatzeko eskaeraren bat jasoz gero bidali berehala helbide honetara: [idazkaritza@oreretaikastola.eus](mailto: idazkaritza@oreretaikastola.eus)**

HEZIKETA ZENTROEN IKASLEEN DATU PERTSONAL, IRUDI ETA BIDEOEN INGURUKO PRAKTIKA ONAK

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak gidaliburu bat argitaratu du datuen babesari buruzko legediaren gainean, heziketa sektorerako egokituta. Bertan, heziketa zentroek ikasleen, irakasleen, guraso edo tutoreen datu pertsonalen tratamenduen inguruan jarraitu behar duten jokaera-prozedura ezartzen da.

Ondoren, laburki, galdera erantzunen bidez, zuentzat interesgarria izan daitekeen heziketa zentro batean ager daitezkeen zalantza sorta bat adieraziko da, edozein egunetan suertatzen diren datu pertsonalen babesaren inguruko gaietan nola jardun behar den jakiteko:

- **Hezkuntza zentroek ikasleen irudiak har ditzakete eskola-jardueretan zehar?**

Ikastola **heziketa-funtzio**arekin lotutako ekintzetan irudiak hartzeko legitimatuta dago. Aldiz, hartzen diren irudi edota bideoak heziketa funtzio horretatik at daudenean (adibidez, zentroaren difusio edo zabaltzea) interesdunen edo beraien guraso edo tutoreen **adostasuna** eskatu beharko da.

Halaber, posible da eskola-ingurunean garatzen diren ekitaldietan argazkiak ateratzea gurasoek horietara sarbidea izateko helburu bakarrarekin. Sarbide hori ikasle, guraso edo tutoreen **aurrez aurreko identifikazio eta autentifikazioaren bidez** gauzatu behar da (adibidez Intranetean). Irudi edota bideoetara sarbidea duten pertsonak ezin dituzte horiek era irekian zabaltzea.

- **Irakasleek ikasleen irudi edo bideoak har ditzakete eskola jardueren baterako?**

Bai, betiere heziketa eta programazioaren garapenaren barnean dagoen area, materia edo moduluarekin bat badator. Hala ere, honek ez du nahi esan irudi edo bideo hori era irekian zabaldu daitekeen Interneten. Hau da, irudi horien sarrera ekintza horietan parte hartzen duten ikasle, guraso edo tutore eta irakasleentzat mugatua egongo da.

- **Familiatzat irekiak diren ekitaldietan parte hartzen duten senideek ikasleen irudiak har ditzakete?**

Bai, baldin eta hartutako irudi edo bideoak **etxeko edo erabilera pertsonalerako soilik** badira. Familiaren batek ateratako irudiak zabaltzearen kasuan (adibidez, Interneten publikatzea) familia kide horren erantzukizuna izango litzateke, beraiek erantzunez, ez Ikastolak.

Gomendagarria da Ikastolak familiei honetaz informatzea, familiek argi izan dezaten nola jokatu behar duten eta argazki edo bideo horiek zabaltzearen kasuan, beraiena dela erantzukizuna.

- **Heziketa zentroan bertan garatzen den ekitaldi bat ezeztatu behar da gurasoren batek bere seme-alabaren argazkiak ateratzea nahi ez duelako?**

Ez, ez da ekitaldia ezeztatu behar. Gurasoei informatu behar zaie nola argazki edo bideoak atera daitezkeen baina eskusiboki etxeko edo erabilera pertsonalerako izan behar dela.

- **Heziketa-zentroek beraien instalazioetan argazkiak debekatzeko ahalmena dute?**

Bai, zentroak irizpide bezala ezarri dezake argazkiak ateratzearen debekua.

- **Posible da zentrotik kanpoko jardueren garapenean irudiak ateratzea?**

Interesdunen edo beraien guraso edo tutoreen adostasuna beharrezkoa da, irudia heziketa-funtziotik kanpo hartzen baldin bada.

Grabazioa hirugarren batek egiten badu (adibidez enpresa bateko arduradunak, bisitatzen ari diren museo batek), hirugarren horien betebeharra izango da adostasuna jasotzea.

- **Publikatu daitezke jangelan ikasleen menuak?**

Bai, elikadura-behar bereziak dituzten ikasleak egon baitaitezke. Aldiz, ez da beharrezkoa ikasleen izen-abizenak eta menuaren erlazioa duten zerrenda publikoak egotea. Nahikoa da jangela zerbitzua eramaten duen pertsonalak zerrenda hori edukitzearekin.

Premiazko beharra egotekotan, **adingabearen osasuna gailentzen da**, dau babesaren legediaren aurrean.

- **Heziketa-zentroek posible ahal dute iragarki-tauletan edo ikasgeletako ateetan ikasleen klaseak eta aktibitateak publikatzea (bakoitzaren izenarekin)?**

Bai, baina bakarrik interesdunek banaketa edo antolakuntzari buruzko informazioa jasotzeko arrazoizko denboran batean. Hala ere, heziketa-zentroak hezkuntzaren kudeaketarako plataforma bat izatearen kasuan, gomendagarria da informazio hori plataformaren bidez eskaintzea (erabiltzaile eta pasahitza erabiliz).

- **Kalifikazioak publiko egin daitezke?**

Kalifikazioak ikasleei eta gurasoei jakinarazi behar zaizkie. Aukera egokia da **hezkuntza plataformen bitartez egitea, sarbidea erabiltzaile eta pasahitz bitartez ezarriz**. Hala ere, posible da ikasgelan kalifikazioa erakustea edo ahoz adieraztea, betiere ikasleei pertsonalki eragin ahal dizkieten komentario gehigarriak saihestuz.

- **Publikatu ahal dira Ikastolaren web orrialdean irakasle, tutore eta zentroko beste arduradunen datuak? Eta ikasleenak?**

Web orrialdea irekia denean, hau da, bereizkuntzarik gabe edozein pertsonak sarbidea duenean eta gainera heziketa funtzioa aurrera eramateko beharrezkoa ez denean, aurretiazko adostasuna eskatu beharko da. Ordea, publikatzen den informazioa ikasle, guraso edo tutoreei murriztuta badago publikatu daiteke, betiere irakasleei informatuz.

Ikasleen irudi edo bideoak publikatzearen kasuan **adostasuna** eskatzea ezinbestekoa da. Posible eta gomendagarria izango litzateke ikaslea identifikatu ezin izateko moduko argitalpenak egitea, hala nola, irudiak pixelatuz.

Horrez gain, eskola ingurunean garatutako ekitaldietako irudi edota bideoak publikatu daitezke helburu bakarrekin: guraso edo tutoreek irudi edo bideoetara sarbidea izatea, betiere ingurune seguru batean aurretiazko identifikazio eta autentifikazioarekin.

- **Baimenduta al dago Whatsapp erabiltzea irakasleen eta gurasoen/legezko tutoreen artean?**

Ez da gomendatzen irakasle eta gurasoen artean edo irakasle eta ikasleen artean WhatsApp bezalako berehalako mezularitza-aplikazioak erabiltzea. Hala ere, adingabearen interes goren konprometituta badago (adibidez, eskola-txango bateko istripua edo ondoeza) eta gurasoak, guraso-ahalaren titularrak, informatzeko eta lasaitzeko helburuarekin, irudiak hartu eta bidali ahal izango zaizkie.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

<http://www.tudecideseninternet.es/agpd1/images/guias/GuiaCentros/GuiaCentrosEducativos.pdf>